

2007ko apirila

59. zenbakia

Aikor!

txorierriko aldizkaria

Sondikatik Loiurako hegaldia



David Calvo – Derioko San Isidro jaiak – Larrabetzuko Txakolin Eguna – Goikolanda KE

Derioko jaiak

Ondo pasa jaietan!!!



Derio


Zurkin Auzerak



**ZIRIBADA
JATETXE**

☎ 94 454 5045

Baselbarrakall Plaza, 1
40160 DERIO



OPTICA MODERNA

Erdoña, 4 - 40160 DERIO - Telefonoa 94 454 37 93



ARRATE

Cósmica - Cosmón - Ongaitza

En el centro de la ciudad, 70
metros al norte, en el centro de la ciudad,
a 100 metros del centro, 100 metros del centro.

EL CENTRO DE LA CIUDAD
En el centro de la ciudad, 70 metros al norte, en el centro de la ciudad,
a 100 metros del centro, 100 metros del centro.
En el centro de la ciudad, 70 metros al norte, en el centro de la ciudad,
a 100 metros del centro, 100 metros del centro.



Empresas y servicios de la región

**Ondo pasa jaietan
Eutsi aukaraz barba
egiteko konpromisoari**

55%

Medio de la ciudad, 70
metros al norte, en el centro de la ciudad,
a 100 metros del centro, 100 metros del centro.

BASKOLAN
construcciones

**Peñonak, delantak,
larruak, eta jaietan
konponak eta iragarriak egiten**

1. BASKOLAN, S.L. BASKOLAN

DERIO, 4.

94 454 37 93

1. BASKOLAN, S.L. BASKOLAN

94 454 37 93

1. BASKOLAN, S.L. BASKOLAN

Aukerak



JOSEBA BUTRON
(Irakaslea)

Esan genezake ze gure bizitza aukerak egitea dela, erabakiak hartzea. Konturatu barik edo gura izan barik ere aukerak egin behar izaten ditugu: hau edo hori, holan edo halan, honegaz edo haregaz..., beti aukeratzen. Eta batzuetan ondo aukeratzen dugu, ondo erabakitzen dugu. Batzuetan.

Baina, egia da bestalde, hainbat alderdi berez datozkigula, aukeratu behar izan barik, edo ahal izan barik. Kasurako, ez dugu aukeratu gizon edo emakume izatea, neska edo mutil izatea, gure familian jaio-tzea, dauzkagun gurasoak edukitzea, edo gure begien kolorea, edo daukagun adina edukitzea, eta abar. Horrelakorik ezin izan dugu aukeratu, horiek berez etorri zaizkigu.

Bitxia da kontua, ze buruari apur bat eragiten hasiz gero ur sakonetan sartzen gara, eta horregatik, beharbada, ez gara honelako gauzen gainean pentsatzen hasten. Esaterako, pentsatu ote dugu inoiz zer izango ginatekeen mutil jaio beharrean neska jaio bagina, edo alderantziz? Zelangoak izango ginateke? Edo itsu edo gor-mutu? Edo garai honetan jaio beharrean beste garai batean jaio bagina? Antzina, esaterako. Zelangoa izango litzateke kasu horretan gure bizimoduak, zelangoak izango ginateke? Gaur garen modukoak? Edo Euskal Herrian jaio beharrean Lurreko beste edozein lekutan jaio bagina? Bai, ze mundua nahiko handia da, eta hemen inguruan jaiotzea nahiko kasualitate handia da, berez.

Hortaz, zer gara? Suertatu zaigunaren ondorio ala guk geuk izatea erabaki dugunaren ondorio? Ala bietarik apur bat? Kontu

filosofikoetan sartzea izango da, baina zergatik ez? Bestela, kantak zioen moduan, errutinaren morroi bihurtuta bizitzeko arriskua daukagu. Merez du horretaz ere pentsatzen paratzea, sikiera apur baten.

Baina, beharbada, gehiago merezi du zer aukeratzen dugun pentsatzen jartzea. Hartzen ditugun erabakiek gure bizitza zelan baldintzatzen duten gogoetatea. Kasurako, testu hau honaino irakurtzea aukeratu dugu, aldizkari hau jaso eta irakurtzea, halako baten euskaraz ere irakurtzea erabaki genuelako. Euskaldun izan edo ez aukeraren aurrean euskaldun izatea erabaki genuelako. Eta erabaki sinple horrek igual gure bizitza aldatu du, eta beste urrats batzuk ematera ausartu gara, aukera berriak ipini zaizkigula-

ko begien aurrean.

Edo igual ez. Beharbada aukera hori egin genuen behin, baina ezin izan dugu tradizioaren indarra garaitu. Eta, horrela, igual domeketan –edo astegunetan ere, zergatik ez– betiko erdarazko egunkaria erosten segitzen dugu, Francoren garaitik hona beti erosi dena, leku guztietan egoten dena, denek irakurtzen dutena. Aukeratu behar izango ez bagenu legez, berezko zeozer izango balitz bezala. Euriaren modukoa balitz legez, gure aukeretatik eta erabakietatik kanpo balego legez.

Baina ez. Ez da horrela. Euria egitea edo ez ezin dugu aukeratu, baina bai bustitzea edo ez bustitzea. Guk geuk egiten dugu aukera, aukerak badirelako.

Aldaketa nabarmen eta arinak

Jakin badakigu jendartea dinamikoa dala, eta horren adierazle dira azken urteotan izan ditugun aldaketa nabarmen eta arinak, besteak beste emigranteen desplazamenduak.

Euskal Herrira datorren jendea era askotakoa da. Batzuk Europatik datozenak dira. Asko dira gure hizkuntza eta kulturatik oso urrun dagoenak. Hego Ameriketatik datozenak oster, badakie gaztelerea. Hori “abantaila” izan daiteke hasierarako.

Horrek guztiorrek eragin handia izango dau mende barri honen alderdi desbardinetan, esaterako Hezkuntzan. Dagoaneko jendarteak eskaera barriak luzatu deutsoz Hezkuntza munduari.

Ikastetxeetan aniztasun guzti hori aberastasun moduan ikusi geinke, edo gure hizkuntza eta kulturarentzat mehatxu modura. Erkidegora etorrira, hori guztiori nahastatzen jaku ikasteko hizkuntz ereduen gainean zabal dabilen eztabaideagaz. Gogoetatu beharko dogu kanpotik datozenen seme-alabak zelan etxekotu alkarren arteko errespetuan.

Etorkinak ez dau izaten informazio handirik hona heltzean; beharrianak indar eginda dator kasurik gehienetan. Datuen arabera, ikasle etorkinak batez ere A ereduari matrikulatu izan dira.



ANA MEZO
(Irakaslea)

Beraz, ezinbestekoa egiten da eskola komunitate osoa inplikatzeko, eta eleanitzak izango diran ikasle euskaldunak hezi behar baditugu, eskola estrategia aldatzea, erronka handia da-ta.

Baina inori ez jako eskapatzen ikastetxe batek berak bakarrik ezin daua hori dana egin. Hezkuntza Sailak eta tokian tokiko Udalek ere zeregin handia daukie. Lehentasunezko gaia izan beharko litzateke. Zuzen ibili ezean hizkuntzetan eleanitzak izango dira gure ikasleak, baina bidean euskerea galdu leiteke.

Ez daitezela etorkinak izan atxakia eskolea erdalduntzeko. Lehentasuna eta bitartekoak emon ezkerreko lan handia egin leiteke.

FMC Forest, S.L.
Zabaldu Paila
Bosketuaren alde
Jasotzen dugun
eta erabiltzen dugun
Paila 100% FMC

FMC forest

GOIKO TABERNA Bar-Restaurante
Familara eta laguna

- Best Dinerak
- Kaskoak eta
- Bepelak

Arretaz eta laguntzarekin zure etxetik gertu

LUTERIA LEZAMA

SOLUPA
LUTERIA LEZAMA
1-85

GUZTIAK 100% NATURAL
NATURAL DUTZAK

SALSAK
Salsak

BOZAK, BOZAKAK, BOZAKAK
BOZAKAK, BOZAKAK

BOZAKAK
BOZAKAK

BOZAKAK
BOZAKAK

Lezamako ordezkariak laguntza eraman dute Saharara



Alaitz Etxeandia eta Joseba Intxaurtza Lezamako zinegotziek Tindufeko errefuxiatu sahararren kanpamenduetara bidaia egin dute Aste Santuan. Udal ordezkariak Emheiriz herria bisitatu zuten, izan ere Lezama herri horrekin senidetuta dago 2004tik.

Herri sahararrak pairatzen duen egoera politikaren ondorioz, asko dira dituzten beharrianak eta arazoak; horien artean umeen, nagusien eta senarrik ez duten emakumeen egoera latza aipa daiteke.

Beharrian horiek betetzen laguntzeko, Lezamako Udalak 3.000 euro agindu zuen

Emheiriz herrira 2005ean. Diru hori haur-tzaindegia eraikitzeko erabili zen. Haur-tzaindegian 0 urtetik 3 urtera bitarteko umeak hartzen dira, eta bertan zortzi gela, jantokia eta txoko bat atondu dira. Haur-tzaindegia hornitzeko materiala ere eraman zuen Udalak.

Beste alde batetik, ur-arazoa ere jasaten dute. Horrela, lagun askok kilometroak eta kilometroak egin behar dituzte ur bila. Lezamako Udalak Ur Proiektuan parte hartu eta 3.000 euro jarri zuen kanpadendetatik hurbil ur biltegiak jartzeko. Etxeandiak eta Intxaurtzak beste 4.000 euro eraman dute aurten proiektu horrekin jarraitzeko, eta dagoneko 50 bat dira ura etxe ondoan duten familiak. Zinegotziek medizina ere eroan dituzte.

Intxaurtzak azaldu digun moduan, Udalak Ur Proiektuarekin jarraitzeko asmoa du etorkizunean eta, horrezaz gainera, era ezberdinetako materiala aginduko du bertara: bulego-materiala, jolasak eta koadernoak, besteak beste. "Lan polita egiten ari gara. Saharan area eta harriak baino ez daude; gu duintasuna ematen saiatzen gara".



Hamaika taldek parte hartuko dute Derioko hip-hop jaialdian

Maiatzaren 19an Derioko Jam Hip-hop V. Jaialdia egingo dute kiroldegi aurrean. Jaialdia arratsaldeko 6etatik goizaldeko 4etara bitartean izango da, eta bertan 9 talde lokalek eta Estatuko talde bik parte hartuko dute. Aldizkaria inprentara eraman orduko, 9 talde lokaletatik 8 konfirma ditzakegu: 312 (Bilbo), 121 Krew (Barakaldo), Los cirujanos de la sede (Santutxu), La dulce rima (Santutxu), Arimaren oihuak (Lezama), Cadena perpetua + Pirkel (Derio) eta Mc Oker + Josso (Derio eta Erromo). Estatuko taldeak hurrengoak dira: Lor (Santander) eta ZPU (Bartzelona). Azken horrek *El hombre de oro* bere azken lana aurkeztuko du.

Jaialdia Arte Urbano elkarteak antolatu du, eta azaldu digutenaren arabera, jendetsua izatea espero dute. "1998ko jaialdia itzela izan zen, eta Deriok orduan hip-hop mugimenduaren inguruan hartu zuen fama berriro hartzea nahi dugu. Kartel ona dago aurten, eta posible dela uste dugu".

Merceria Karmele
Modulak, modak, p. modak, modak, modak, modak

LEANDRO LANDETA
PARAGITEGIA-URDAITEGIA
Os. Euzk. 1 - Tel. 94 40 10 10 - 4877000000

GALAISA
Carnegie eta Beapaindegia
94 40 10 10 - 94 47 10 10
Europa
Europa

ANKAPAZ
LANHANTZU
LANHANTZU
LANHANTZU
LANHANTZU

ATAKABI
Lanbideak, 4 - 4877000000
Tel. 94 40 10 10

FONTANERIA DOBARAN
Remontaje - Instalación
• Electricidad
• Fontanería
• Climatización
94 40 10 10
94 40 10 10
Molina, 4 - 4877000000

ITXORIERRI
Inmobiliaria
Vivienda, 4 - 4877000000
Tel. 94 40 10 10

Goiri 78 S. L.
Barrio Ciudad
P.O. BOX
Tel. 94 40 10 10
94 40 10 10
4877000000

Derioko Udalak lankidetzahitzarmena sinatu du UNICEFekin

Lander Aiarza Derioko alkateak eta Teresa Infante UNICEFen Euskal Herriko presidentek lankidetzahitzarmena sinatu dute. Hitzarmen horren ondorioz, Udalak 6.000 euroko dirulaguntza eman dio elkarteari. Dirulaguntza bi zatitan banatuko da. Batetik, 3.000 euro bideratuko dira erakunde horren egitasmoetara, eta beste 3.000 euroak Udalak laster kaleratuko duen lo-kantek osatutako CD baten salmentetatik lortzea espero da. Hala ere, Udalak diru kopuru hori aurreratu egin dio UNICEFi dagoeneko.

Diskoa ekoizteak 12.000 euro balio izan du, eta bertan Iparralde Korralak eta Derioko Herri Ikastetxeko 36 umek parte hartu dute. Maiatzean-edo herriko dendetan egongo da salgai, 3 euro ordainduta.

UNICEF elkarteak haurren eskubideak defendatzen ditu 160 herrialdetan, eta Euskal Herrian 1970etik aurrera jarduten du. Beste alde batetik, munduko ume gutxi egoera onean bizi direla eta gainontzekoei lagundu beharra dagoela gogoratu du Aiarzak.



Loiuko gazteak Bartzelonan izan dira

Martxoaren 16tik 18ra bitartean Loiuko gazteek Bartzelona bisitatu dute, kultura teknikariak eta Gazteguneko ardura-dunak lagunduta. Bidaia Loiuko Gazte Planaren barruan antolatu da, eta bertan 13 urtetik 28 urtera bitarteko 30 lagunek parte hartu dute.

Gazteek bisita kulturalak egin dituzte hiritik zehar: Nou Camp futbol zelaia, Familia Santua eta Auzo Gotikoa, besteak beste.

Antolatzaileak pozik daude, izan ere, bidaia horrekin helburu bi bete dira: alde batetik, antolatzen diren ekitaldietan gazteen partehartzea handia izatea lortu da, eta, beste alde batetik, herriko gazteek elkar ezagutzeko aukera eduki dute.

Gazteek ere positiboki baloratu dute bidaia. "Interesgarria izan da. Gehiago antolatu beharko lirakeke", dio Xabier Uriarte. Macarena Ormazak ere lagun asko egin ditu. "Ez zara asperitzen, zure adinetako jendearekin zaude-lako".

Sahararekiko konpromisoa

Loiuko Udalak hainbat materiala Saharara eramateko asmoa izan du Aste Santuan; hala ere, garraio-arazoak direla-eta, ezin izan du dena agindu. Material hori klasifikatu barik dago oraindik, eta gazteek lan hori egiteko konpromisoa hartu dute.

OTIKA IKUSLAN

Ikuslan enpresa indusiala.
Ikuslan enpresa indusiala.
Egitekoak, enpresa indusiala.
Ikuslan enpresa indusiala.

Ote Indus, Iribarri 14-401 28.15.200.000

TALLERES JUAN ANDRÉS

REPARACIONES, MANTENIMIENTO, PINTURAS, JANTZEN

Carretera de Iribarri 14-401 28.15.200.000

ZAMUDIO

REPARACIONES, MANTENIMIENTO, PINTURAS, JANTZEN

Carretera de Iribarri 14-401 28.15.200.000

ASESORIA

Liz. Fernando Aguirre, S.L.

Carretera de Iribarri 14-401 28.15.200.000

pro audio

REPARACIONES, MANTENIMIENTO, PINTURAS, JANTZEN

Carretera de Iribarri 14-401 28.15.200.000

VICTOR

REPARACIONES, MANTENIMIENTO, PINTURAS, JANTZEN

Carretera de Iribarri 14-401 28.15.200.000

Sabón Askofazaga

REPARACIONES, MANTENIMIENTO, PINTURAS, JANTZEN

Carretera de Iribarri 14-401 28.15.200.000

Arbolito

REPARACIONES, MANTENIMIENTO, PINTURAS, JANTZEN

Carretera de Iribarri 14-401 28.15.200.000

Mankomunitateak ondorengoetaratze kanpaina martxan jarriko du maiatzean

Txorierriko Mankomunitateak ondorengoetaratze kanpaina martxan jarriko du maiatzean. Kanpaina 0 urtetik 3 urtera bitarteko umeen gurasoei zuzenduta dago, eta kanpaina honek seme-alabak euskaraz hezteko kontzientziatzea du helburu. Horrela, gurasoei gutun pertsonalizatu bana aginduko zaie, eta bertan hainbat aholku emango zaizkie. Aholkuak ezberdinak izango dira gurasoak erdalduinak badira, euskaldunak badira edo gurasoetako batek euskaraz badaki.

Gutunaz gainera, liburuxka eta adur-zapia jasoko dute 2006. urtean jaio diren haurren gurasoek; eta liburuxka, askaripoltsa eta *Txikia* izanik CDa, 2 urtetik 3 urtera bitarteko seme-alabak dituztenek.



Trebatzailea Mankomunitateko eta Udaletako langileekin dabil lanean

Euskararen presentzia Mankomunitateko udaletxeetan eta zerbitzuetan indartzea da Txorierriko 2007-2010eko Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren erronketariko bat, eta horretarako, trebatzaile bat kontratatu da. Trebatzaileak Mankomunitateko eta Udal bakoitzeko langile guztiekin banan-banakako elkarrizketak izan ditu, egitasmoaren helburua zein den azaltzeko

eta langile bakoitzaren euskara maila eza-gutzeko. Hurrengo pausua trebatze saioak egitea da, langileek euren lana euskaraz egin ahal dezaten arlo guztietan. Horrezaz gainera, hizkuntza eskakizunen berri ere emango zaie. Egitasmoak Txorierriko Udaleko eta Mankomunitateko Euskararen Barne Planak aurrera eramatea du helburu.



Euskararen aldeko jaietara irteerak Mankomunitateak antolatuko ditu

Orain arte euskararen aldeko jaietara irteerak Udal bakoitzak antolatu ditu bere kabuz, baina batzuetan, autobusak betetzeko beste jende apuntatzen ez zenez, irteerak bertan behera utzi behar izan dira. Hori dela-eta, Mankomunitateak antolatuko ditu hemendik aurrera. Herritarrek euren udaletxean egin beharko dute izen-ematea, eta kultura teknikariek Mankomunitatera aginduko dituzte datuak. Mankomunitateak irteera antolatu eta autobusa alokatzeko ardura hartuko du.

Maiatzean Herri Urratsera (hilaren 13an, Senperen) eta Ibilaldira (hilaren 20an, Balmasedan) egingo dituzte. Izen-ematea maiatzaren 8ra arte egin daiteke, eta 5 euroko fidantza ordaindu beharko da. Partehartzaileei 3 euro bueltatuko zaizkie.

Mankomunitateak 8.365,88 euro banatu du euskara ikastaroak egin dituztenen artean


Txorierriko Mankomunitateak 8.365,88 euro banatu du 2005-2006an ikasturtean euskara ikastaroak egin dituzten herritarren artean. Orotara, 58 txorierritarrek egin zuten eskaera, baina dirulaguntza horietatik 49k jaso zuten. Beste 9ri ezetza eman zitzaizen, baldintza guztiak betetzen ez baitzituzten.

Beste alde batetik, 2006-2007ko ikasturteari dagokion dirulaguntza eskatzeko epea urrian zabalduko da. Eskatzaileek dirulaguntza abenduan kobratzen ahaleginduko da Mankomunitatea.

San Isidro, Larrabetzun

Maiatzaren 15ean San Isidro izango da, eta hainbat herritan ekitaldiak egingo dituzte, egun hori ospatzeko. Larrabetzun hurrengo egitaraua antolatu dute:

10:30: Txistulariak
10:00-14:00: Euskal Produktuen Azoka
Txikia
11:00: Meza Nagusia
13:30: Trikitilariak
14:30: Anaiarteko bazkaria



Larrabetzuko estankoak 100 urte bete ditu

Martiaren 14an Larrabetzuko estankoa inaugurau eben; barrizatze lanak urtarrilean hasi ziran lokala berrantolatzeko. Halan be, itxurea barriturik agertu arren, historia luzea dau estankoak: 100 urteko historia.

1906an, Migel Uriguenek abarketa negozioa ipini eban Andra Mari kaleko Undabarrena baserrian. Urteak joan eta urteak etorri, asko eraldatu zan negozioa: abarketak saltzetik estankoa izatera igaro zan; baina Uriguen familia egon da beti negozioaren kargu. Orain, Txaro Olabarri —Migelen iloba— dabil buru, eta Maite alabak laguntzen deuto.

Lehen aitatu dogun moduan, Migel Uriguenek abarketagintzea eban ogibide, eta Undabarrena baserrian zabaldu eban denda. Baina etxea behera bota behar izan zan, eta, haren orde, oraingo etxea altzau eben. Barrizatze lanak batera abarketa negozioa moldatzea ekarri eben eta, ondorioz, haregaz batera taberna, jangelea eta janari dendea be zabaldu ziran lokal berean. Senar-emazteak atzeko etzalekuan bizi ziran 12 seme-alabakaz; goiko solairuak alokairuan izan zituen 60ko hamarraldira arte. Uriguenek 1924an hartu eban estanko lizentzia.

Bittori Txaro Olabarriren ama da, eta harek lekukoa hartu eutsan aitari 1953an. Garai haretan lokala bitan zatitu zan: alde batetik, estankoa jarri eben eta, bestetik, janari dendea. Azken horren ardurea Bittoriaren ahizta batek hartu eban. Era berean, taberna ondoko establezimendura aldatu —gaur egun dagoan lekura, alegia—, eta errentan emon eben.

Tabakoaz ganera, apur bat danerik saltzen hasi zan Bittori estankoan: zapa-tak, egunkariak, mertzeria artikuluak, aldizkariren bat... Herritarrek behar zituen hainbat gauza topa eikiezan bertan. Andrea 37 urtean izan zan estankoan, eta Txarok aitataren eta amaren negozioagaz

“Urteak joan eta urteak etorri, asko eraldatu zan negozioa, baina Uriguen familia egon da beti negozioaren kargu”

jarraitu dau 1990etik hona. Urteak pasa ahala, gero eta artikulu gehiago hasi dira estankoan saltzen: ogia, liburuak, era askotako aldizkariak, kinielak, opariak... Eta lokala ez zan egokia hainbeste gauza antolatzeko. Horregaitik, urtarrilean barrizatze lanak egitea erabaki eben. “O-



raindino lan txiki batzuk egin barik doguz, baina barrizketari esker leku zabala goa dogu eta oso pozik gagoz. Bezeroak be pozik dagoz. Estankoa oso polito lotu dala esaten deuskue”. Barrizketa eta lokalaren 100. urteurrena aldi berean izan dira.



Txaro Olabarrik aitataren eta amaren negozioagaz jarraitu dau 1990etik hona

Nahi duzun lekura iristeko arazoak dituzu?



Elektronikaren arazoak

Estalkien arazoak

Plakaren arazoak

Arazoak agur...



902 54 08 54

www.arlan.biz

Kalitatea, espazioa, lasaitasuna...
Aurki ezazu behar duzun guztia



Zure etxean gustura egotea nahi duzu Sukian. Homegotik, Landabari Etxelaitza gurea eraiki dugu, Bilbo Handiko habitat berria. Beti zure ametsa izan den lekua, etxebizitza pertsonalizatuak eta kalitatezkoak dituenak. Tasa eroso bari eta gureta ekipamendu berria eta berdegarritasun Raffolok, aireportutik eta Teknologia Dikartegitik gertu dagoen inguruan. Zatoz Sukiana, zure etxean zaude.

 **sukia**
Zure etxean zaude.

www.sukia.com

Txorierriko musika-taldeek entseguak egiteko lokala izango dute


Txorierriko Mankomunitatea musika entseatzeko lokala atontzen dabil Derioko Larrabarri baserrian. Lokala Derioko Udalak utzi du, eta 14 urtetik 29 urtera bitarteko gazteek erabili ahalko dute.

Musika-taldeek entseguak egiteko lokala atontzeko ideiak Txorierriko Gazte Planean du sorburua. Institutuan eta Politeknikan lan-taldeak eta foroak antolatu zituzten, gazteen beharrak, kezkak eta eskariak ezagutzeko asmoz. Txorierriko gazteek egindako eskarien artean, musika entseatzeko lokala zegoen, eta Mankomunitateak gaia aztertu zuen. Horrela, musika-fitxa banandu zuten etxez etxe herri guztietan.

Bertan hurrengo galderak egin zizkieten gazteei: zein instrumentu jotzen zuten, zeintzuk ziren musika arloan zituzten premiak, eta, euren ustez, zelako jarrera izan behar zuen Mankomunitateak gai horretan.

Etxean ezin dira entseguak egin, eta musika jotzen duten gazte gehienek lokala alokatu behar dute. Lokalen alokairua nahiko garestia da, eta Mankomunitateak arazo hori konpontzeko beharra ikusi du. Txorierriko udalekin harremanetan jarri, eta lokalen bat uzteko eskatu zien. Azkenean, Derioko Udalak Larrabarri baserriko soto bat utzi du, bertan lokala atontzeko.

Lokalak 35 metro koadro ditu, eta gazteek doan erabili ahalko dute. Hala ere, fidantza bat ordaindu beharko da. Gaur egun beharrean dabilta lokalean, eta lanok amaitu ostean, bateriaz, ahots-joko batez eta oin-mikrofono biz hornitzeko asmoa du Mankomunitateak. Atontze lanetan 30.000 euro baino gehiago jarriko dira.



Las Furies, Larrabetzuko taldea

Arau batzuk ere ezarriko dira, lokalaren erabilera egokia izan dadin. Arauok aho batez onartuko dira, eta, zentzu horretan, gazte batzuek ekarpenak egin dituzte dagoeneko.

Musika arloan gazteek dituzten beharizanak asetzeaz gainera, lokalak Txorierriko gazteen arteko harremanak sendotzeko balio izango duela uste du Mankomunitateak. Era berean, denbora libre modu osasuntsuan betetzeko aukera izango dute.

Nora jo

Lokalean izena emateko epea laster zabalduko dute, eta hori erabiltzeko interesa dutenek hurrengo telefono hauetara dei dezakete:

- **Txorierriko Mankomunitatea**
Telf: 94 454 03 50 (Esther)
- **Txorierriko Gazte Bulegoa**
Telf: 94 453 67 98 (Inge; 9:00etatik 14:00etara) / oij@e-txorierrri.com
- **Derioko Gazte Bulegoa**
Kiroldegi-liburutegia (Astearreetan, 16:00etatik 18:00etara)
- **Larrabetzuko Gazte Bulegoa**
Telf: 94 455 82 71 (Astelehenetan, 16:00etatik 18:00etara)
- **Lezamako Gazte Bulegoa**
Telf: 94 455 61 26 (Ostegunetan, 16:00etatik 18:00etara)
- **Loiuko Gazte Bulegoa**
Telf: 94 471 18 30 (Ostiraletan, 16:30etik 18:30era)
- **Sondikako Gazte Bulegoa**
Telf: 94 453 67 98 (Astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 14:00etara)
- **Zamudioko Gazte Bulegoa**
Telf: 94 452 24 49 (Asteazkenetan, 16:00etatik 18:00etara)

Larrabarri baserria



David Calvo, Rubik kuboko maisua

“Kuboa 12 segundutan osa daiteke”

Etxean 17 segundo behar izaten du Rubik kuboa osatzeko. Bera, David Calvo Vivas da, (Bilbo, 1986) Rubik kuboa aditua. Erno Rubik hungariarrak asmatutako kuboaren 300 ale dauzka. Orain telekomunikabide ingenieritza ikasten dabil Bilbon, eta Sarriko auzoan bizi da. Aste gutxi barru Derion izango dugu kuboaren gaineko ikastaroa ematen. Aspaldiko jolasaren berri izan gurean solasaldi txiki bat izan dugu berarekin.

Testua: Eder Merino

Noiz eta nola hasi zinen Rubik kuboarekin?

Txiki-txikitatik puzzleak eta denborapasak asko gustatu zaizkit; nolabait, haienganaiko interes berezia nuen. 4 urte nituenean nire osaba ikusi nuen Rubik kuboarekin eta uzteko eskatu nion. Berehala piztu zitzaidan joko horrenganako grina baina denborak aurrera egin ahala kajoian utzi nuen ahaztuta. Hala ere, 2005eko urtarrilean kajoitik berreskuratu nuen eta berriro ere kuboarekin “lanean” hasi nintzen. Orain arte.

Zenbat balio zuen kuboak lehen? Eta orain?

Espainiara 1981. urtean ailegatu zen kuboa eta nahiko garestia zen, 600 eta 900 pta. artean balio zuen originalak. Orain, originalek 15 eta 16 euro bitartean balio dute baina imitazioak euro baten truke eros daitezke.

Rubik kuboa jolas soil bat da ala bestelako funtzioak ditu?

Erreportaje anitz egin dira horren inguruan. Ikerketen arabera, Rubik kuboa eta orokorrean Puzzle sekuentzialek ikusme-

na, arintasun mentala, trebezia eta logika hobetzen laguntzen dute, pentsatzeko jokoak baitira.

Kuboa zelako garrantzia izan du zure bizitzan?

Niretzako hobby bat da, afizio bat, baina kuboiari esker jende asko ezagutu dut, Espainiako txapelketetan izan naiz eta zonalde guztietako jendea ezagutu dut. Horrez gain, ingelesa praktikatzeko ere lagundu dit, atzerrian ospatutako txapelketetan beharrezkoa delako jendearekin ulertzeko.

*“Kubo propioak
sortzearen ideia askotan
izan dut; kuboak
erosi eta bariazio
ezberdinak sortzen ditut”*

Pentsatzen duzu Rubik kuboaren moda berriro itzuli ahal dela?

Bai, apurka-apurka itzultzen ari da, baina zaila da 80ko hamarkadan izandako arrakasta lortzea, garai hartan boom bat izan baitzen.

Zure kubo propioak sortzearen ideia izan duzu?

Jakina, ideia hori askotan izan dut, askotan egiten dudana kuboak erosi eta bariazio ezberdinak sortzea da, kuboaren zenbait zati aldatuz.

Erno Rubikekin baduzu harremanik?

Ez dut berarekin harreman zuzenik, baina merkatuko enpresekin bai. Erno Rubik oso pertsona isila da eta itzalean egotea gustatzen zaio. Beraz kontaktu zuzena edukitzea nahiko zaila da.

Zenbat segundotan osatzen duzu kuboa?

Etxean nagoenean 17 segundoren bueltan egiten dut, baina Espainiako txapelketan 16 segundotan. Ameriketara eta Asiaratara gehiago daramate kuboarekin lanean eta 12 segundotan osatzea lor dezakete.



Azken estetika-aurrerapenak, zugarantz

Auxi apaindegian azken punta-ko teknologia aurkituko duzu estetika-tratamenduei dagokierik. Horrela, bada, edozein motatako aurpegi eta gorputz-tratamendu egiten dute bertan, merkatuko teknikarik berrienak erabiliz. Auxi apaindegiak bezeroei eskaintzen dizkien tratamenduen artean hurrengoak aipa daitezke: azken generazioko laser-depilazioa, zelulitisaren kontrako tratamenduak, larruazal-ildoen aurkakoak, sendotzaileak, erradiofrekuentzia, presoterapia, manikura eta pedikura, betileak kiribiltzea eta tintatzea, eta tatuaiak eta mikropigmentazioa.



Fotodepilazioa, ilearen arazoa amaitu da behin betiko

Fotodepilazioa argi-izpi bat erabiliz ilea kentzean datza. Argi-izpi hori laserra edo argi pultsatua izan daiteke. Ilean melaninak argi-energia absorbitu egiten du era selektiboan eta folikuluraino eramaten du, bero bihurtzeko. Horrela, bada, matrize ernegarria atrofiatu, eta ilea berriro ateratzea eragotzi egiten da.

NOLAKOA DA FOTODEPILAZIOA?

- Fotodepilazioa **azkarra** da: depilatu nahi den gorputz-atala ederki gelditzen da lehenengo tratamendu-saiotik.
- Fotodepilazioa **aurrerakorra** da: edozein tratamenduren moduan, saio batzuk egin behar dira, emaitzarik onenak lortzeko.
- Fotodepilazioak **garantiak** ematen ditu: Depitotal[®]-k bermatu egiten du tratamendua amaitu ostean ilea guztiz desagertzen dela.



Fotodepilazioa
Fotodepilazioa
Fotodepilazioa

Depitotal[®]

Elos, estetika-teknikarik iraultzaileena

Erradiofrekuentzia + argia. Zelulitisaren aurka borroka egiteko estetika-tratamenduetako teknikarik berriena da eta *Elos* (*Electro Optical Sinergy*) du izena. *VelaSmooth* ekipamenduak argi-iturri horiek biak uztartu egiten ditu eta, hori dela-eta, bakarra da merkatuan.

Elos teknologia argi-iturri biak –erradiofrekuentzia eta infragorriak- *vacunterapia*rekin uztartzen ditu ezin hobeto, eta estetizistari benetako iraultza eskaintzen dio. Izan ere, tratamendu sakonagoa, baina aldi berean ez erasotzailea, egiteko aukera ematen du, arlo bitan arituz: bolumena murriztean eta larruazala berrindartzean, hain zuzen ere.

VelaSmooth ekipamenduak erradiofrekuentzia-energia bipolarra, infragorritzko bero-energia eta hurrupatze pulsatua askatu egiten ditu eskuzko aplikagailu baten bitartez. Aplikadorea zuzenean ezartzen da larruazalean eta, horren ondorioz, zelulitisa gutxitu eta larruazalaren sendotasuna hobetu egiten da.

Elos teknologia estetika arloan egindako teknologia-aurrerapenen iraultza da. Sinergia elektrooptikoak (*Electro Optical Sinergy*) erradiofrekuentzia eta infragorritzko argi-energia uztartzen ditu, eta *VelaSmooth* ekipamenduak biltze horri arrabolak eta *vacunterapia* gehitzen dizkio, buru bakar batean tratamendurik eragingarrienak lortuz.

Elos teknologia infragorritzko argiaren sartze-ahalmen ezberdinez baliatzen da, sartze-sakonera espezifikoa eta zehatza lortzeko. Argi-espektroa eta erradiofrekuentzia uztartuz egiten du hori.


Infragorritzko argiak objektiboa aurreberotu egiten du eta, bitartean, bero-iturriak erradiofrekuentzia erakarri eta dermis azpiko kaparik sakonenetan energia-zurrumbilo bat sortzen du, ehun koipetsua desegiten lagunduz eta gorputzaren kolageno naturala estimulatuz.

***VelaSmooth*-ek gorputzaren atal zehatzetan eragiten du**

Aplikagailu bikoitzari esker, beste batzuek ezin dituzten gorputzaren ataletan eragin daiteke: belaunetan, besoetan, aurpegian, kokotsean, izterretan, ipurmasailekoetan... Emaitzak nabariak dira lehenengo saiotik, eta ez da beharrezkoa geroko tratamendu sendotzaileak egitea.

Konponbide ez erasotzailerik onena zelulitisaren aurka

Zelulitis-arazoak badu konponbidea. *Elos* teknologia duen ekipo bakarra *VelaSmooth* da, gorputzean eragin eta zure irudia moldeatzen baitu, itxura sendoagoa eta gazteagoa emanez.






Hazten jarraitzen dogu




Alberto Bilbao, suhiltzailea (Lauroeta). Txorierriko euskaltzaleentzat agur bero bat. Aupa Aikor!


TOTOAN Txorierriko Euskara Elkarleen Federazioak urtarrilean jarri eban martxan Aikor!lagun kanpaina, eta harrezkero jaso dogun atxikimendua handia izan da, benetan. Halanda ze, 80 txorierritar eta euskaltzale baino gehiago egin dira dagoeneko Aikor!lagun. Hurrengoa ZEU!



Idoia Mendiguren, irakaslea (Zamudio). Aikor! aurrera ateratzea asko kostatu da, eta, horregatik, Txorierriko euskaltzaleok bere etorkizuna ziurtatzen ahalegindu behar dugu.



Hanot eta Maddi Lasa (Zamudio). Aikor!lagun egin gara, aitak eta amak txikitatik inguruko berriak gure hizkuntzan hartzea nahi dutelako.



Nerea Elexpuru, Aurregoiti jatetxeko sukaldaria (Lauroeta). Aikor! aldizkariari laguntza emateko prest nago, geure-geurea dogulako.



Karlos Ibarzabal, ingeniari bertsozalea (Mungia). "Kulturaren alde Aikor! / hainbeste euskaldun jator / ikuskeran pentsatu neban / Karlos sartu behar dok hor"



AIKOR!lagun

Egin zaitetz euskararen lagun!

Lehen abizena:

Bigarrena:

Telefona:

et post:

Egutegia: 70 zenbakia:

Urteko kosta: 70 euro, _____ Honek kopuru bat _____

Orri hau bidaltze bidezko bidaltze: Aikor! Arretu kalea 2, 15 - 48 170, Zamudio


Zure laguntzaren ahalekian lagunduko dugu!



Jaione Aburto eta Jose Mari Uribarri (Loiu). Txorierritarak bagara bertoko barriak jakin gura doguz, **AIKOR!** aldizkariak hori emoten deusku, eta euskeraz!



Joseba Larrondo, Lauroetako muslaria. **AIKOR!** aldizkariaren alde, euskara bultzatzeko eta Txorierrri ezagutzeko.



Eider Palmou, irakaslea (Derio). Txorierritarren adierazpen askatasuna posible eginen duelako egin naiz aikor!lagun.




Ezker Batua-Berdeak. Ezker Batua euskararen alde!




Joseba Etxebarria, bikoizketa aktorea (Larrabetzu). Txorierrin herririk herri hegaz dabilen txoria da **AIKOR!** eta txorierritar guztion etxean dauka habia. Jagon daigun gogor eginda, txorierritar guztiok loizen gaituen katebegia da-ta.

Pepi Dobaran, dendaria (Lauroeta). Gustura hartzen dot **AIKOR!** hilero. Poz handia emoten deust.



Txerra Rodriguez, Topaguneko teknikaria (Derio). **AIKOR!** aldizkariaren inguruan proiektu berriak nahi ditugu, kalitatezkoak eta Txorierriko euskaldun guztiengana helduko direnak.



Derioko Herri Ikastetxea (Derio). Txorierrri euskaldun baten alde gaude.



Hazi egin nahi zuen aireportua



Sondika betidanik ezaguna izan da urte askotan izan duen terminalagatik. Bizkaiko aireportuaren herria izan da, eta batzuentzat oraindik izango da, ziur asko. Hala ere, terminalaren toki berria ez da Sondika, Loiu baizik, 2001. urtearen amaieran terminala Sondikatik Loiura lekuz aldatu baitzuen Madrilen dagoen Aenako bulego zentralak. Erabakiak iritzi ezberdinak sortu ditu aireportuko langileen eta instalaziotik hurbil bizi diren pertsonen artean.

Testua: Jon Goikouria

Sondika Bizkaiko aireportuaren ataria zen. Gaur, ordea, bata bestearen alboan egon arren, ez dute ia inolako harremanik. Egun, terminal zaharrak ez du inolako funtziorik, barruan ez baitago ezer. Barruan ez dago inor. Sondikako terminala txikia izan da, eta betidanik jakin dute laster edo berandu zer bait egin beharko zela. Saiakerak egon ziren terminal zaharra bertan behera ez uzteko, eta hainbat zabalkuntza egin ziren, bai heldueren pabilioian, bai hegazkinen aparkalekuan. Baina berrikuntzok ez zuten emaitza onik izan.


Sondikako terminalak izan zuen berrikuntzarik erabilgarriena pistaren zabalkuntza izan zen: duela hogeitabat urte 12-30 pista edo 'pista nagusia' (2.600 m) eraiki

“Sondikako terminala txikia izan da, eta betidanik jakin izan da laster edo berandu zabalkuntzaren bat edo leku aldatzeren bat egin beharko zela”

zen Loiu aldean. Pista hori da gaur egun hegaldi komertzialetarako erabiltzen dena. 10-28 pista zaharra, oster, laburragoa da (2.200m) eta “Aero Link” Pilotuen Eskolako hegazkin arinek erabiltzen dute. Gainera, 12-30aren ordezko modura erabili ohi da nagusiarekin arazoren bat sortu denean. Sondikarantz ezin zen hazi aireportua, herritik metro batzuetara dagoelako, eta terminal zaharra Loiura eraman behar izan zen. Aenako Madrilgo Bulego Zentralak asmo hori zuen aspalditik. “Terminal berria inauguratu zenean hogeitabat urte bete zituzten aurretiko lanek” dio Patricio Gutierrez, aireportuko lanen gainbegirale nagusiak.

Aireportua eraberritu behar zen. Hasiera-hasieratik argi zegoen. Horregatik, Antonio Sanchez Loiu ingeniari aeronautikoa Patriciorekin bat dator, eta baieztatzen du terminalaren lekualdatzea bidaiari eta aireontziengatik egin zela. Hots, Sondikako aireportua txikia geratzen hasi zelako, bertatik egunero pasatzen ziren bidaiariak zein aireportuak jasotzen zituen hegazkinen kopurua hartzeko. Bi adituek azaldu duten moduan, Sondikako terminalak 2 milioi lagun har zitzakeen; Loiuak, oster, 4 eta 6 milioien artean dabil gaur egun. Beraz, lekuz aldatzearen

“Sondikako terminalak 2 milioi lagun har zitzakeen; Loiuak, oster, 4 eta 6 milioien artean dabil gaur egun”



*“Loiuko aireportuaren
toki aldatzeak
modernizazioa ere
erakarri du, Sondikan
bertan zeuden
instalazioekin ezin
zelako inolako konexio
internazionalik egin”*

arrazoi garrantzitsuenetarikoa hori izan zen. Bigarren mailako arrazoiak ere badira, aireportuaren internazionalizazioa, kasurako: gero eta konpainia gehiago daude, aireontzien kopurua nabarmenki igo da, batez ere kostu baxuko konpainiei dagozkien hegazkinez ari bagara. Aldi berean, terminal berriak konexioak sortu ditu Frankfurt eta Londoneko aireportuekin. Esan daiteke Loiuko aireportuaren toki aldatzeak modernizazioa ere erakarri duela, Sondikan bertan zeuden instalazioekin ezin zelako inolako konexio internazionalik egin. Beraz, gaur egun ez zaio Bilboko aireportu nazionala deitzen, Bilboko aireportu internazionala baizik.

Calatravaren “Paloma”

Lekuz-aldaketarako aurretiko lanak 1981. urtean hasi ziren. Urte horretatik aireportua inauguratu zen arte, lursailen desjabetzapenak egin ziren, terminal berriak hainbat lursail beteko baitzituen. Desjabetze lanek hamabost urte iraun zuten. Desjabetze lanak amaitutakoan, terminal berrirako diseinua egitea beharrezkoa zen, eta Aenak eraikin berrirako lehia-keta antolatu zuen. Irabazlea Santiago Calatrava arkitekto valentziarra izan zen.

“La Paloma” deitu zion terminal berriko eraikuntzari, eta funtsezko osagaiak beira, hormigoia eta batez ere kolore zuria dira. “La Paloma” eraikinarekin batera kontrol dorre berri bat diseinatu beharrean topatu zen Aena, esan bezala gero eta hegaldi gehiago zeudelako. Hortaz, Calatravak berak ere “El Halcon” diseinatu zuen. Eraikin honen goiko aldeak belatz baten itxura du.

Mamuen terminala

Lanek bost urte iraun zuten, eta 2001eko urrian inauguratu zen Loiuko aireportu berria. Harrez geroztik, Sondikako aireportua alboraturik geratu da. Urteetan zehar hainbat iradokizun egon dira bertan behera utzitako pabilioi erraldoiari erabileraren bat emateko, baina alferrik. Hasiera batean BBK bankua terminal zaharraren heldueren pabilioia erosteko

prest agertu zen, aireportuari buruzko erakusketak antolatzeko. Beste momentu batean jatetxe bat eraikitzea proposatu zen, toki handia baitzen aparkaleku erraldoi batekin, baina azken ideia honek ere ez zuen emaitza onik eman. Azken proposamena “Air Nostrum” konpainiarena izan zen, pabilioia erosteko prest egon baitzen

*“Urteetan zehar hainbat
iradokizun egon
dira Sondikan bertan
behera utzitako pabilioi
erraldoiari erabileraren
bat emateko,
baina alferrik”*



Hästens ★

denda

Cualon amebelako
ohetx

www.hastens.com

ARTEAGA koltxoi-denda

Deriska Sotikaria • 94 454 51 47 • DERIO

hangar moduan erabiltzeko. Baina azkenean ez da ezer egin, eta eraikina hutsik dago.

Terminalaren leku aldaketak hainbat ondorio ekarri ditu; bai aireportutik hurbil bizi diren pertsonen, bai Aenako langileen. Ezbairik gabe, terminalaren aldaketa gehien igerritu dutenak bidaiariak eta aireportutik gertu bizi diren familiak izan dira. Asua aldean, Mari Carmen Torrebiartek etxea Sondikako terminalatik bost metrora dauka, eta bere esanetan, ohituta zegoen hegazkin erraldoiek sortzen duten burrunbetara: “aldaketa ez da nabaria izan” dio andreak, “baina gehien gogaitzen gaituztenak hegazkin arinak eta helikopteroak dira”. Argi dago “Aero Link” eskolak ere bere alde txarrak utziko zituela. Eskola sortu zenetik egunero ikus daitezke helikopteroak praktikak egiten Sondika gainetik. Mari Carmen, kasu pertsonal modura, terminal berriaren urruntasunaz kexatzen da.

Gainera, aireportua gaizki komunikaturik dagoela adierazten du: “autobus linea bakarra dago Bilbora, lotsagarria da”.

Hala ere, Patricio Gutiérrezrek eta Antonio Sanchezek ez dute horrela ikusten. Haien ustez, lehen baino hobeto komunikaturik dago terminal berria. Patriciok zera dio: “Errepideei dagokienez, Loiu eskuragarriago dago Sondika baino, hainbat autopistekin konexio ezin hobearekin; Txorierrikoa eta A-8koarekin batez ere”.

Bestalde, Sondikako aireportua txikia zen, eta zabalkuntza egiteko premia zegoen. Logikoa denez, Sondikako aldean ezin ziren lur desjabetze lanak egin. Desjabetze lanak zelai handietako toki batean egin behar zirelako, eta hortaz, Loiu zen tokirik aproposena.

Hegazkinen burrunba

Hegazkinen sortzen duten zarata dela




“Loiuko terminalarekiko komunikazioa hobetzearen proiektuak azaldu dira; trenaren, euren artean”

eta ez dela, ez dugu ahaztu behar Asuan Derion baino zarata gutxiago entzuten dela, azken herri honetan hegazkinak erai-kin altuenetatik metro gutxi batzuetara pasatzen baitira, eta nahiz eta derioztar gehienak zarata handi honetara ohituta egon, kutsadura akustikoaren gaia pil-pilean dago azken egunotan.


Gainera, bigarren mailako arazo modura, hegazkinen isatsaren atzetik normalean uzten duten aire korronteez behin baino gehiagotan altxatu izan dituzte etxe bat baino gehiagoko teilak. Irtenbide modura, Aenak plataforma antzeko bat ezarri zuen 12-30 pistan, Deriorantz ematen duen muturrean. Plataforma honek arlanpa itxura du, eta hegazkinen lurreratzeko orduan marjina minimo bat hartzera behartzen ditu.

Etorkizunari begira

Loiuko terminalarekiko komunikazioa hobetzearen proiektuak azaldu dira. Aurreko lerroetan aipatu bezala, gaur egun taxiak eta ordu erdiko frekuentzia duen autobus linea bakarra baitaude. Gauza da etorkizunean, aireportuak garai batean Sondikarekin zuen komunikazioaren antzekoa lortzea. Eraginkorra. Tren linea berri bati buruz hitz egiten dute Patriciok eta Antoniok, baina “denbora kontua da”. Era horretan, Loiuk Sondikak izan zuen prestigioa lortuko omen du noizbait.



Hotel Tryp Sondika



TRYP

HOTEL



Loiuko berritze lanak

saren parean dagoen lursail batean". Antza denez, Loiuko terminalak egun dituen 3 solairuetako 3.000 aparkalekuak urriak izaten hasi dira eta espazio gehiago behar da autoak uzteko. Martxan dagoen bigarren berrikuntza heldueren itxarongela egokitzea da. Taxi-en parkingeko zonaldea beirazko estalki baten bidez estaltzea erabaki du Aenak, "horrela, jendeak senideren bat itxarotean ez du hotzik pasatuko" dio aireportuko lanen gainbegiraleak. Hirugarren berrikuntza 'Charlie'n zabalkuntza da. 'Charlie'ak pista nagusia eta aireontzien korridorea komunikatzen dituzten pista zatiak dira. Egun bost daude, eta zabalkuntza posible baten berri eman du Aenak.



**MARMOLERIA
TXORIERRI
MARMOLDEGIA**

*Sakalale eta bainugeletako harriak
fotusala, atariak eta hilerriak*

Txorieta (Aragoia) kalea, 1. 1.º - 50010 - Sarriena
41710 ZAMUDIO (BIZKAIJA)
Tel/Fax: 94 608 01 41 - 2

[illegible][illegible]

ADDITIONAL INFORMATION

For a full range of products, visit our website at www.cisco.com

San Isidro bedeinka gaitzala!

